

Arkitektura Unibertsitate Masterra 2026·2027

**A masterGela**

ikaslearen gida

|                                                    |           |
|----------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. ARKITEKTURA MASTERRA. A MASTER GELA.....</b> | <b>3</b>  |
| 1.1 DATU OROKORRAK .....                           | 3         |
| 1.2 IRAKASLEAK.....                                | 3         |
| 1.3 AZALPEN OROKORRA.....                          | 3         |
| 1.4 LANERAKO GAIAK .....                           | 4         |
| <b>2. HELBURUAK .....</b>                          | <b>5</b>  |
| <b>3. MASTERRAREN EGUTEGI OROKORRA. ....</b>       | <b>5</b>  |
| <b>4. KLASEAK.....</b>                             | <b>7</b>  |
| 4.1 PROIEKTUAREN GARAPENeko KLASEAK.....           | 7         |
| 4.2 GARAPEN TEKNIKOKO KLASEAK .....                | 8         |
| <b>5. EMATEETARAKO ARAUAK .....</b>                | <b>8</b>  |
| 5.1 PROIEKTUAREN GARAPENA: .....                   | 8         |
| 5.2 GARAPEN TEKNIKO: .....                         | 8         |
| 5.3 EZ OHIKO DEIALDIA .....                        | 8         |
| <b>4. PROIEKTUEN GARAPENA IRAKASGAIA .....</b>     | <b>8</b>  |
| 4.1 IRAKASGAIAAREN EDUKIA.....                     | 8         |
| 4.2 METODOLOGIA.....                               | 9         |
| <i>Klase praktikoak .....</i>                      | <i>9</i>  |
| <i>Klase teorikoak .....</i>                       | <i>9</i>  |
| 4.3 PRAKTIKA/BIDAIA .....                          | 10        |
| 4.4 IKASGELAKO ESKOLA-ORDUAK .....                 | 10        |
| 4.5 EGUTEGIA.....                                  | 10        |
| 4.6 EBALUAZIO SISTEMA .....                        | 11        |
| 4.7 2026-27 IKASTURTEKO PROIEKTU GAIK .....        | 12        |
| <i>GAI OFIZIALA 1.....</i>                         | <i>12</i> |
| <i>GAI OFIZIALA2.....</i>                          | <i>13</i> |
| <i>GAI OFIZIALA3.....</i>                          | <i>14</i> |
| 4.7 BIBLIOGRAFIA.....                              | 15        |

## 1. Arkitektura Masterra. A MASTER GELA

Arkitektura Masterrak bi alde ditu: Proiektuaren Garapena eta Garapen Teknikoa. Azken honek hiru ataletan banatzen da, eta hauetako bakoitzak, (Eraikuntza, Atondurak eta Egiturak) bere gida propioa izango du, eGelan publikatuko direla.

### 1.1 Datu orokorrak

|                       |                                               |                  |
|-----------------------|-----------------------------------------------|------------------|
| Ikasturtea            | 2026-2027                                     |                  |
| Ikasgaia              | 240 – ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKO          |                  |
| Plana                 | ARQUI12b – ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA |                  |
| Saila                 | 137 – ARKITEKTURA                             |                  |
| Irakasgaia            | 504713 – Proiektuaren Garapena                | ECTS kredituak12 |
| Irakasgaia            | 504354 – Garapen Teknikoa                     | ECTS kredituak9  |
| Irakasgaia            | Practicum                                     | ECTS kredituak9  |
| Master Amaierako Lana |                                               | ECTS kredituak30 |

### 1.2 Irakasleak

#### **Proiektuaren Garapena**

Javier Poldain Huarte, proiektuetako arlokoa

Jon Begiristain Mitxelena, proiektuetako arlokoa

Izaskun Aseguinolaza Braga, hirigintza eta lurralde antolamenduaren arlokoa

#### **Garapen Teknikoa**

Jon Begiristain Mitxelena, egituren arlokoa

Iñigo Lizundia Uranga, eraikuntzaren arlokoa

Xabat Oregi Isasi, atondura eta zerbitzuen arlokoa

### 1.3 Azalpen orokorra

Master Gela izendatzen dugu Arkitektura Masterreko ikasketa eta lanak garatzeko lekua. Masterrak lan praktikoa eta bere zuzenketa du oinarri, eta haren inguruan antolatzen dira klase teoriko eta hitzaldiak.

Arkitektura Masterra arkitekto titulua lortzeko unibertsitateko azken maila da. Bertan, ikasleak proiektu baten definizioaren ibilbide osoa garatuko du, bakarka. Lan hau, programaren definiziotik hasita, proiektuaren urrats ezberdinetatik pasata, definizio teknikoraino jorratuko da. Gradu bost urtetan egindako irakasgaiarekiko desberdindu nahi da honako lan hau. Desberdintze hau aspektu ezberdinetan garatu daiteke, besteak beste:

- Proiektu bateratu oso baten garapena da, bertan irakasgai ezberdinetan jasotako ezagutzak konbinatu behar dira, hirigintzatik hasita, proiektuetatik igarota, definizio teknikoraino. Atal ezberdin hauek ez dira arlo isolatu bezala ulertu behar, uztartutako ikuspegi eta definizio bezala baizik.
- Proiektuaren gaia, kokalekua eta programa proposatzea eskatzen da hasiera batean. Hauen egokitasuna eta inguruan duten zentzua proiektuaren hausnarketaren lehen urratsa izango

da.

- Ezinbestekoa ez izan arren, proiektuaren izaera propositiboa aintzat hartuko da. Zentzu horretan, proposatutako gaia ofizialetako bat hiri egoera estrategiko baten baitan kokatzen da eta bestea landa lur egoera batean. Norberak proposatzeko gaia aukera ere egongo da eta honen garapenerako antzerako gerturatze bat eskatuko da.

#### **1.4 Lanerako gaiak**

Ikasle bakoitzak kurtsuan jorratuko duen gaia, honako aukera hauen artean hautatuko du:

a) LIBREA. Ikasleak hasieratik gaia eta kokaleku bat aukera dezake, gustuko duen tokian eta programarekin. Urtean zehar eraikina garatuko du. Honako modua aukeratzen duen ikasleak kurtsoko lehen klasean ahalik eta informazio gehien eraman eta azalduko du. Proiektua planteatzeko nondik norako nagusiak edo-ta lehen hausnarketak azaltzea ezinbestekoak dira.

Aurkezpen horretan proposamenaren egokitasuna baloratuko da. Egokitasun hau, MaL ongi garatu ahal izateko ematen dituen baldintzak bezala ulertu behar da. Esate baterako, gai bat handiegia, txikiegia, konplexuegia bada, zailtasunak eman ditzake Master Lana garatzeko. Beraz egokitasuna kontu praktiko bezala ulertzen da. Erreferentzia bezala 1.500-2.000m<sup>2</sup> inguruko azalera har daiteke.

Klaseko lehen bi asteetan erabaki beharko dira proposamenaren nondik norakoak, eta onartzen den edo ez. Ezezkoan, Gai Ofiziala jorratu beharko du ikasleak.

b) GRADU AMAIERAKO LANA. GraL-ean egindako proiektua gai bezala har daiteke ere bai. Librean bezala, ikasleak GraL-aren gaia, lekua eta programa azalduko ditu, bai eta azken emaitza ere. Proiektua ezingo da bere azken ale horretatik jarraitu. Birplanteatze bat eskatuko da, DEKONSTRUKZIO eragiketa bat.

Honetan ere, klaseko lehen bi asteetan erabaki beharko dira proposamenaren nondik norakoak, eta onartzen den edo ez. Ezezkoan, Gai Ofiziala jorratu beharko du ikasleak.

c) GAI OFIZIALA. Master gelako irakasleek proposatutako gaiak izango dira. Ikasturte batetik bestera aldatzen joango dira.

#### **Gaiaren aukeraketa**

Ariketa librea egin behar dutenentzako, gai aurkezpenera xehetua/garatua ekartzea oso beharrezkotzat jotzen da. Eraiki nahi denaren hasi aurreko proposamena ekarri beharko lukete klasera eta erakutsi: programa, ideiak, erreferentziak, eraikuntza sistema, lehen gogoetak, maketa (behar bada)... ez planteamendu hutsala, intentsitatekoa baizik.

Gai ofizialekoek, berriz, agian ez lukete hainbeste lana aurreratu behar, halarik ere, tokiaren ezagutza, ahuleziak, dituen izaera arazoak, eskala ezberdinak... ezagutzekoak lituzkete, eta klasean erakustekoak ere. Hiru kideko taldea egun horretarako osatuta izan behar dute.

GRAL-eko gaia garatzea onartzekoa litzateke, beti ere, hasieratik de-konstrukzio prozesu bat planteatzen bada, gauzatutakoaren irakurketa kritikoarekin batera. Ikasleak garbi izatea GRAL-ak zer duen ongi eta zer hobetzekoa. Proiektua osatze prozesu horretan zer luke bir-planteatzeko, eta eraldaketak nondik nora jo behar duen ere.

Errepikatzailak beren aurreko proiektuekin segitu nahi izatera, prozesu berberetik pasa beharko lukete: analisi kritikoa, eta, garapen berriari nondik helduko erakutsi beharko.

Esan bezala, **lehen klasearen egunean**, gai libreko ikasleek, zein GraLekoek eta errepikatzailak nondik norako bidea hartu behar duten garbi erakutsi beharko lukete, proiektu oso bat garatzeko ahalmena dutela erakutsiz.

Lehen bi asteetan proposamen bideragarria ez bada bilatzen ikasleak gai ofiziala hartu beharko du.

**Bigarren asterako**, ikasle guztiek argi eta garbi izan beharko lukete MasterGelako ikasturtean zehar zer egin behar duten.

## 2. Helburuak

Master gelako Proiektuaren Garapena ikasgaiaren Irakaskuntza Gidak zeintzuk diren jorratu beharreko gaitasunak eta ikasketa helburuak ezartzen ditu. Horiek lirakeke, laburki zerrendatuta, helburu nagusiak:

- . Programaren azterketa kritikoa, beharrak eta abaguneak
- . Erreferentzia eta aurrekarien ikerketa proiektuaren fase guztietan
- . Proiektua garatzeko prozesua dokumentatzea eta diskurtso bat osatzea
- . Eraikuntza sistema, egitura eta eraikinaren atondura eta zerbitzuak proiektuan lehen unetik sartzen diren faktoreak izatea.
- . Erabakiak hartzeko autonomia eta eraginkortasuna.
- . Lan tresnen erabilera (maketak, ebaketak, 3D, axonometriak, eskuzko krokisak...)
- . Egitasmoak eta gogoetak komunikatzeko gaitasuna.

## 3. Masterraren egutegi orokorra.

Egutegiaren antolaketa orokorra hurrengo orrialdean ikus daiteke. Ordutegi honek aldaketa izan ditzake. Dena den, klasean aipatu, adostu eta jakineraziko dira.

Lehen lauhilekoa Urritik Urtarrilaren bukaera arte izango da. Bigarren lauhilekoa Otsailaren hasieratik Maiatzaren erdira.

Lehen lauhilekoan Proiektu Garapenaren klase teorikoak eta praktikoak emango dira (normalean) ostegunero. Garapen Teknikoaren klase teorikoak egongo dira baita ere.

Bigarren lauhilekoan Garapen Teknikoaren klaseak emango dira gehien bat. Lauhileko honetan saio kritiko berezi bat egingo da Garapen Teknikoa zein Proiektu Garapenaren ikasle/irakasle guztiak, proiektuen alde tekniko eta proiektuala behar bezala uztartzen ari diren.

Garapen Teknikoko klaseak asteazkenero izango dira, egutegian xehetuta agertzen da.

Ostegunetan, goizero izango dira klasea praktikoak, eta arratsaldetan, berriz, klase teorikoetan konbinatuko dira hitzaldiak eta masterreko irakasleen klaseak.

Egutegia xehetua erantsita doa, bertan emate orokor datak daude baita ere. Ez ahaztu hasierako egutegia dela, kurtsoan barna zenbait salbuespen sortuko balitz, e-Gelaren bitartez jakin araziko zaizue aldez aurretik.

2026-27 ikasturtearen aurkezpena Masterraren egutegi orokorrean iragarriko da. Eskolako web orrian ikusgai egongo da.

[illegible]

ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA - 31 TALDEA (EUSKARA)

|       |           | PROIEKTUAREN GARAPENA<br>PROIEKTUAK (A eta B taldeak elkarrekin) |  | PROIEKTUAREN GARAPENA<br>PRÁCTICAS (A eta B taldeak elkarrekin) |  | GARAPEN TEKNIKOA<br>MAKETA (A eta B taldeak elkarrekin) |  | GARAPEN TEKNIKOA<br>PRÁCTICAS (A eta B taldeak elkarrekin) |  |  |  |
|-------|-----------|------------------------------------------------------------------|--|-----------------------------------------------------------------|--|---------------------------------------------------------|--|------------------------------------------------------------|--|--|--|
| ASTEA |           | ASTELEHENA                                                       |  | ASTELEHENA                                                      |  | OSTEGUNA                                                |  | OSTIRALA                                                   |  |  |  |
| 15    | 02-06 OTS | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 16    | 09-13 OTS | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 17    | 16-20 OTS | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 23-27 OTS | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 30-03 MAR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 06-10 MAR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 18    | 13-17 MAR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 19    | 20-24 MAR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 20    | 27-31 MAR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 03-07 APR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 10-14 APR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 17-21 APR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
|       | 24-28 APR | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 21    | 01-05 MAY | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 22    | 08-12 MAY | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 23    | 15-19 MAY | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |
| 24    | 22-26 MAY | A WASTEGIA                                                       |  |                                                                 |  |                                                         |  |                                                            |  |  |  |

|         |                                                  |
|---------|--------------------------------------------------|
| EMATEAK | PROIEKTUAREN GARAPENA 1. denburua: OTSAILAREN 28 |
|         | PROIEKTUAREN GARAPENA 2. denburua: MARTXOAREN 5  |
|         | GARAPEN TEKNIKOA 1. denburua: OTSAILAREN 27      |
|         | GARAPEN TEKNIKOA 2. denburua: MARTXOAREN 22      |
|         | GARAPEN TEKNIKOA 3. denburua: MARTXOAREN 29      |
|         | GARAPEN TEKNIKOA 4. denburua: MARTXOAREN 29      |

## 4. Klaseak

Garapen Teknikoko klaseetan alor bakoitzeko irakasleak egongo dira, lauhilekoan zehar alor teknikoko gai bakoitzari klase egun batzuk egokituko zaizkie. Gai bakoitzak (egiturak, eraikuntza, atondurak) bere antolaketa eta ibilbide propioa izango du kurtsoan barrena. Ikasturte hasieran zehaztuko da klaseak nola banatuko diren.

### 4.1 Proiektuaren Garapeneko klaseak

Klase egunetan, hitzaldiak noiz eta non (eta salbuespenak), atxikitako egutegian daude. Edonola ere, eta kurtsoa aurrera joan ahala zenbait aldaketa sortuko direnez, e-gelaren bitartez ere eguneratuko da egin beharrekoa.

Oro har, ostegunetan, goiz-arratsalde izango dira klaseak. Goizean zuzentze saioa, era arratsaldean, hitzaldi bat emango dute irakasle/arkitekto gonbidatuek zein etxekoek. Kanpoko irakasle askok erdaraz emango lukete klasea, etxekoek berriz euskaraz emango dute klase, eta A+B taldeentzako izango dira.

Printzipioz, emanaldiak "ofizio" saioak deituko ditugu, profesional batek emango duelako, eta alde zuzenetik jakin araziko da nork emango. Hitzaldietara zein klase teoriko guztietara **etortzea erabat derrigorrezkoa izango da**, Masterraren oso baitakoak baitira honako saio horiek. Zerrenda bat pasako da arratsaldean ikasleak apunta daitezen (gutxienezko % 85 asistentzia derrigorrezkotzat joko

da).

Aipatutako asistentzia ez bada betetzen Garapen Proiektualeko 1. deialdiko nota Ez Aurkeztua izango da eta ikasleak 2. deialdira itxaron beharko du bere garapen proiektualeko nota jakiteko, beti ere irakasgaia gainditua badago.

#### **4.2 Garapen teknikoko klaseak**

Lehen lauhilekoan garapen teknikoko aurkezpen saioak izango dira, hauetan egin beharreko lana azalduko da eta beharrezko diren kontzeptu nagusiei buruz arituko da. Honez gain, lehen lauhilekoan emate konbinatuak egon ahal izango dira, (proiektu+egitura, esate baterako) emate hauek aztertu eta zuzentzeko saio bereziak programatuko dira.

### **5. Emateetarako arauak**

#### **5.1 Proiektuaren Garapena:**

Gairen aurkezpena digitala izango da, eta lehen bi asteetan, gai libre guztien segitzeko egokitasuna erabakiko da (aldatuta, handituta, bere horretan, GRALarena...).

Urrian, Azaroan eta Abenduan zenbait emate eguna jarriko dira, bi edo aurreikusten dira, eta aldeztu aurretik jakin araziko.

Urtarrilaren 26-30 bitarteko astean, Oinarrizko Proiektuaren emate ofiziala egingo da (edukien finkatzea klasean egingo da).

Maiatzaren emate hilaren bukaeran aurreikusten da, baino horrek aldaketa izan dezake kurtsoaren garapenaren arabera. Egutegiko data hori ez da finkoa. Hasieran aurkezpen digitala egingo da, horren paperezko alearen emate finkatuko da urtean zehar (A2an normalean).

Klase egunetan lanak erakutsi ahal izateko baldintza formal gutxi batzuk zehaztuko dira ikasturte hasieran: irudi landuak, argudioak, adierazteko gaitasun minimoa, esan nahi dena ongi borobiltzea...

#### **5.2 Garapen Teknikoa:**

Ikasturtean zehar azalduko dira emate arauak.

#### **5.3 Ez ohiko deialdia**

Ez ohiko deialdia egutegi ofizialean finkaturik dago.

Deialdi horietarako ez dago klase berezirik.

### **4. Proiektuen Garapena irakasgaia**

#### **4.1 Irakasgaiaren edukia**



Irakasgai honetan proiektuaren garapena jorratuko da. Arkitektura Graduan egiten den moduan, gai/programa orokor bat planteatuko da toki jakin batean eta lehen lauhilekoan osoan garatuko da proiektua. Lauhilekoaren bukaeran Oinarrizko Proiektu baten garapen maila duen lana/proiektu bukatu eta emango da.

Mundu profesionalean eraikin bateko askotariko alorrak aldi berean garatu ohi dira proiektuan. Eraikinen dimentsio ezberdinak adostu behar dira eta askotan paraleloan jorratu behar dira. Esate baterako, hiri araudiak betetzean eraikinaren egitura orokor edo materialen planteamenduak egin ohi dira. Edo azalerak ezagutzeko eraikuntza xehetasunen neurriek definituta izate beharrezko izan daiteke.

Graduan zehar irakasgaiak aske garatu ohi dira (eta uztartzeko saioak Lantegi Bateratuak izan dira), Masterrean aldiz, mundu profesionalera jauzia emateko azken urratsa izanda, egoera honetara hurbilduko gara. Ez da erabat beharrezko alor teknikoak erabakita izatea baina proiektua garatzen ari denean irizpide teknikoak hartzen joaten proiektuaren mesederako izango da. Era berean, behin Oinarrizko Proiektua emanda, eta definizio tekniko xehetua garatzeko garaian, proiektua ez da izoztu, fase honetan proiektuak bizirik dirau eta hobetzen jarraitzeko aukera eskaintzen du. Hobeto esan eta indarra gehiagorekin

Irakasgaiaren izaera praktikoagatik bere edukia proiektu gai bakoitzarekin elkar lotuta dago. Ikasleak gaia erabakiko duenez, oso lan ezberdinak egon daitezke talde berean. Edonola irakasleok proposatzen ditugun gai ofizialak nabarmendu daitezke irakasgaiaren eduki bezala.

Gai ofizial hauek aurrerago xehetuko dira. Hiri edo herri gunek konplexuak dira. Bertan antolaketa orokorrak proposatuko dira eta ikasle bakoitzak garatzeko zati bat aukeratuko du.

## **4.2 Metodologia**

Bi klase mota egongo dira, teorikoak eta praktikoak. Banaketa hau ikasketa planetik definituta dator. Klaseen erdiak teorikoak izango dira eta beste erdiak praktikoak.

### **Klase praktikoak**

Klase praktikoetan, graduako proiektu klaseetan egin den moduan ikasleak etxean garatutako lana ekarri eta azalduko du. Lan hauen aurkezpenak gehien bat publikoak izango dira talde osoarentzat. Tarteka, taldeetan banatu ahal izango gara proiektuen nondik norakoak modu lasaiagoan eta ikasle guztien partehartzea sustatzeko.

Gai ofiziala batzuk aukeratzen duten ikasleek, proiektuaren lehen urratsak talde lanean garatuko dute. Bi, hiru edo lau pertsonako taldeak osatuko dira antolamendu orokorra garatzeko. Lehen antolakuntza horren ondoren ikasle bakoitzak antolaketaren zati bat aukeratuko du bakarka garatzeko.

Hasera batean gai ofiziala aukeratzen ez dutenek bakarka arituko dira.

Hainbat ostegunetan, klase praktikoen hasieran, zenbait klase labur teoriko eman daiteke, OSAGARRIAK, ikasleak egindako lanekin zerikusia duten adibideak eta jarraibideak ongi ikusteko.

### **Klase teorikoak**

Klase teorikoak bi motakoak izango dira. Alde batetik Master Gelako irakasleek klase teoriko magistralak emango dituzte. Klase hauetan proiektuaren gai nagusi bat azalduko da... edo bizitza profesionalarekin erlazionatuan dauden gaiak jorratu daitezke. Hirigintza eta Arkitektura Proiektuen gaiak izango dira. Klase teoriko hauek A eta B gelentzat berdinak izango dira eta bi Master Gela hauen

irakasleek emango dituzte.

Bestalde, lauhilekoan zehar profesioaren ikuspegi ezberdinak jorratzen dituzten profesionalak ekarriko dira hitzaldiak ematera. Askotariko sorta izango da, eskala eta esparru ezberdinen adierazleak dira. Batzuk bulego txikoak izango dira, besteak autore arkitektura egiten duten arkitekto ospetsuak. Bulego handiren bat egon daiteke baita ere. Hirigintzan aritzen direnak ekarriko dira lauhileko hasieran. Bulego kudeaketa modelo bereziak dituzten ereduak ekartzen saiatuko gara baita ere. Gure eskolan formatuta, inguruan lan egiten duten bulego txikiak gonbidatu izan ohi dira baita ere. Klase teoriko guzti hauen artean profesionalko modu egokian garatzeko ikuspegi orokor bat eskaini nahi da.

### **4.3 Praktika/Bidaia**

Ikasturte honetan, bi egunetako "lan-bidaia" egingo dugu Bordelera ikasle eta irakasleak. Goizean abiatu, Bordelen lo egin, eta biharamuneko gauean Donostiratu. Urriaren 30-31, ostegun/ostirala aurreikusia dugu.

Lan Bidaia izanik, ikusi beharrekoa aldeztatik prestatuko da, bai eta zer eskatuko ikasleei landa praktika horretatik. Ikuste pasiboa baino ikertzea/arakatzea litzateke bidaiaaren helburua.

### **4.4 Ikasgelako eskola-orduak**

|                                    |          |
|------------------------------------|----------|
| Klase teorikoak                    | 60 ordu  |
| Klase praktikoak                   | 60 ordu  |
| Irakasgaiari klasez kanpoko ardura | 180 ordu |

### **4.5 Egutegia**

| aste | data        | klasea                                                                                | oharrak                              |
|------|-------------|---------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------|
| 1    | Urriak 1    | <b>arratsalde, MasterGelaren aurkezpena</b><br>Gaiaren aukera zein izango den zehaztu |                                      |
| 2    | Urriak 8    | goizez: ikasleen gai proposamena (1. intentzioak)<br>arratsalde: klase teorikoa       | Talde lana gai ofizialetan           |
| 3    | Urriak 13   | arratsalde: etxebizitza jaurdunaldiak                                                 |                                      |
| 3    | Urriak 14   | arratsalde: etxebizitza jaurdunaldiak                                                 |                                      |
| 3    | Urriak 15   | arratsalde: etxebizitza jaurdunaldiak                                                 |                                      |
| 4    | Urriak 22   | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Talde lana gai ofizialetan           |
| 5    | Urriak 29   | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Talde lana gai ofizialetan           |
| 6    | Azaroak 5   | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Talde lanaren EMATEA gai ofizialetan |
| 7    | Azaroak 12  | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Aurreproiektu lana                   |
| 8    | Azaroak 19  | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Aurreproiektu lana                   |
| 9    | Azaroak 26  | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Aurreproiektu lana                   |
| 10   | Abenduak 3  | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Aurreproiektu lana                   |
| 11   | Abenduak 10 | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: klase teorikoa                               | Aurreproiektu lana                   |
| 12   | Abenduak 17 | proposamenen saio kritika<br>arratsalde: proposamenen saio kritika                    | Aurreproiektuaren EMATEA             |

| GABONAK |               |                                        |                |
|---------|---------------|----------------------------------------|----------------|
| 13      | Urtarrilak 14 | proposamenen saio kritikoa             | Proiektu lana  |
|         |               | arratsalde: ez dago klasea             |                |
| 14      | Urtarrilak 21 | proposamenen saio kritikoa             | Proiektu lana  |
|         |               | arratsalde:                            |                |
| 15      | Urtarrilak 28 | proposamenen saio kritikoa             | Azken EMATEA   |
|         |               | arratsalde: proposamenen saio kritikoa |                |
| 18      | Martxoak 11   | proposamenen saio kritikoa             | Errepaso saioa |
| 19      | Martxoak 18   | arratsalde                             | Errepaso saioa |
|         |               | proposamenen saio kritikoa             |                |

#### **4.6 Ebaluazio sistema**

|                      |      |
|----------------------|------|
| Antolaketa ematea    | %10  |
| Aurreproiektu ematea | % 20 |
| Azken ematea         | % 70 |

#### **4.7 2026-27 ikasturteko proiektu gaiak**

Lehen aipatu bezala, ikasleak hiru aukeren artean erabakiko du zer proiektua mota egin,

Gai libre bat proposatu,

GRaL proiektua birplanteatu,

edo Gai Ofiziala(k) hartu.

Gai librea bakoitzaren esku, ez du ez oso sinplea ez oso konplexua izan behar. Ikasle bakar batek garatzeko modukoa. 2000 m<sup>2</sup> inguru izango ditu.

GRaL proiektuaren birplanteaketa, lehengo egunean baloratu eta onartu beharko da.

Gai Ofizial hurrengoak dira:

##### **GAI OFIZIALA 1**



IGARA EREMUAREN MISTIFIKAZIO ETA BIRDENTSIFIKAZIOA



Ariketak Donostian kokatutako jarduera ekonomikoetarako eremu baten azterketa eta hiri-berrikuspena proposatzen du, Igara (HAPOan IB.13 IGARA) . Indarrean dagoen HAPOk jarduera ekonomikoari lotutako erabileren ezarpen nagusia aurreikusten du eremu horretarako.

Hala ere, eremuaren egungo errealitate funtzionalak hasierako planeamenduak aurreikusitakoa baino egoera konplexuagoa eta heterogeneoagoa erakusten du. Industria-erabileretatik hurbil dauden jarduerekin batera, hirugarren sektoreko beste erabilera batzuk finkatu dira, hala nola tamaina desberdinetako bulego-eraikinak, azalera handia behar duten merkataritza-establezimenduak —altzari-dendak edo auto-kontzesionarioak, adibidez—, bai eta eremuaren eguneroko funtzionamenduari lotutako erabilera osagarriak ere, besteak beste tabernak, jatetxeak edo kirol-instalazioak.





Aniztasun funtzional hori eraikuntza-morfologia askotarikoekin batera agertzen da. Zenbait gunek industria-poligono tradizionalaren konfiguraziotik hurbilago dagoen izaera mantentzen dute, altuera libre handiko pabiloiekin eta azalera zati batean entreplantak okupatuta. Beste eremu batzuek, ordea, hirugarren sektoreko logikei erantzuten diete, bulego-eraikinen edo hiri-presentzia handiagoko piezen bidez. Horri gehitu behar zaio interes arkitektoniko edo urbanistikoa duten —edo izan duten— eraikin jakin batzuen presentzia; horietako batzuk eraitsi egin dira, eta horrek agerian uzten du eremuaren ondare-dimentsioa eta memoria eraikia ere kontuan hartu beharra.

Irisgarritasunaren ikuspegitik, poligonoak hiriko etorbide egituratzaile (Tolosako etorbidea) bati lotutako sarbide nagusi bat du; beste bi sarbideak, berriz, inguruko bizitegi-eremuen bidez gertatzen dira (Ilarrako auzo berriak).

Azken urteotan, gainera, hasieran eremurako aurreikusitako izaera monofuntzionala are gehiago zalantzan jartzen duten eraldaketak gertatu dira. Hirian dagoen etxebizitza-krisiak hasiera batean bulegoetarako aurreikusitako zenbait espazioen bizitegi-erabilera bultzatu du; eta, berrikiago, bizitegi-erabilera espezifiko berriak ere xtertatu dira, hala nola ikasle-egoitzak. Horri gehitu behar zaio Diario Vasco egunkariaren eraikin zaharra etxebizitza-multzo batez ordezkatu izana. Jarduketa horrek konplexutasun funtzional handiagorako joera indartzen du eta indarrean dagoen antolamendua berrikusteko egokitasunari buruzko eztabaida irekitzen du.

Testuinguru horretan, ariketak honako hipotesi hau hartzen du abiapuntu: eremurako aurreikusitako hiri-eredua, funtzio-banaketa gehiegi bateratuan oinarritua, ez da nahikoa egungo hiri-dinamikek planteatzen dituzten beharrei erantzuteko. Eremuak berrikuspen bat behar du, erabilera-mixtifikazioa ahalbidetzeko, sor daitezkeen gatazkak ordenatzeko, hiri-integrazioa hobetzeko eta, egokia den lekuetan, birdentsifikazio-estrategiak aztertzeke. Horretarako, jarduera ekonomikoaren, bizitegi-erabileraren, espazio publikoaren eta hiri-egituraren arteko harremana berriro pentsatzea proposatzen da.

Ariketak, halaber, eraikin batean erabileren hibridazioa aztertzeke aukera irekitzen du; hau da, erabilera bakarreko piezen ordez, jarduera ekonomikoa, bulegoak, etxebizitza, ekipamendu osagarriak edo erabilera kolektiboak eraikin berean edo hurbileko hiri-pieza berean bateratzeko aukerak aztertzea. Ikuspegi horrek ez du soilik erabileren nahasketa mekanikoa bilatzen; aitzitik, hiri-intentsitate handiagoa, eguneroko erabilera-aniztasuna eta eremuaren bizitasun handiagoa lortzeko estrategia gisa ulertu behar da.

Ikasleek eremua aztertu, arazo eta aukera nagusiak identifikatu, eta antolamenduaren zati bat hautatu beharko dute, irakasgaiaren ariketa gisa zehaztasun handiagoz garatzeko. Proposamenak eraldaketa-estrategiak planteatu beharko ditu, hiri-ehun konplexuago, integratuago eta hiri garaikidearen eskakizunei hobeto erantzungo dien baterantz aurrera egiteko.

## GAI OFIZIALA2

HERRI TXIKI / ERTAIN BATEKO ARIKETA

Norberak hautatuko du herria.



Programa: Herri bateko eskola txikia eta 5 etxebizitzak (beharko balitz, espazio amankomun edo publiko bat ere bai). Zerbait gehiago proposatzea libre da.

Tonoa: Hainbatetan, hirietako ereduak herrietara eramaten dira beren horretan, inongo filtrorik gabe; hala nola, etxebizitza kolektiboaren ereduak, kaleko altzariak eta elementuak, edota espazio publikoaren izaera. Zaila da hitz zehatz batekin herri txikietako "giro arkitektonikoa" definitzea, baina, askoren gainera, "tono" hitzak ederki adierazten du esan nahi den hori. Beraz, tonoa litzateke, hain zuzen ere, ariketa honetan landu beharreko gai nagusietako bat.

Herriaren tamainak eta izaerak zerikusi handia dute tonu hori zehazterakoan: herri txiki barreiatua, herri txiki baten auzoa, kaleak dituen edo kalerik gabekoa, erdi-aroko eskema (kalea) duen hiri txiki bat, erabat nekazaria, mistoa... Herri horren izaerak tonu jakin bat osatzen du, eta horrek, berriaz, eragina izan beharko luke hartu beharreko hainbat erabakitan. Egiatzko eraikuntzarekin zerikusia ez duten, eta herri askotan egiten ari den arkitektura sasi-errustikoetatik oso urrun —kontrako muturretik ez bada— hasi beharko litzateke pentsatzen honako proiektu hau.

Eskala eta neurri txikiko ariketa izanik, proiektua beste era batera pentsatzen hasi beharko litzateke: eraikuntza-sistematik, materialtasunetik, lurren izaeratik... kodeetatik, azken batean. Nola bizi behar edo nahi den herri batean, zer-nolako etxebizitza amankomuna nahi den, zer-nolako harremana izan behar den kanpoko giroarekin... Gion Caminadak egiten dituen horren gaineko hausnarketak erabat egokiak iruditzen zaigu, eta bere liburua *On the path to building* irakurtzea ezinbestekotzat jotzen da.

Herria ez da definitzen, bakoitzaren aukera izango da.



### GAI OFIZIALA3

Proposatutako gai ofizialez gain, proiektu erreal bat masterraren gaitzat hartzeko aukera kudeatzen ari gara Eusko Jaurlaritzarekin. Ikasturtea hasi aurretik, aukera horren berri emango da. Aukera hau, lau epaimahaietako edozeinetan hartu ahal izango da. Ikasturtea hasi aurretik, ikasleek gaia aukeratu ahal izateko beharrezko informazioa emango da.

#### **4.7 Bibliografia**

Caminada, Gion. On the path to building, a conversation about architecture with Florian Aicher. Birkhauser. Basel, 2018

*a+t research group*. 10 historias sobre vivienda colectiva. Gasteiz-Vitoria, 2013

*a+t*. Serie Hybrids. Gasteiz-Vitoria, 2008.

CyT. Arquitectura y Vivienda: Nuevas formas de habitar. Madrid, 2025 (<https://recyt.fecyt.es/index.php/CyTET/issue/view/4784>)

Moneo, Rafael. Nuevos intereses, otros discursos. Iruñea-Pamplona, 2019

Equipo Arquitectura. ¡El tiempo construye! El proyecto Experimental de Vivienda (PREVI) de Lima: génesis y desenlace. Gustavo Gili. Barcelona, 2008

Gili Galfetti, Gustau. Pisos piloto. Células domésticas experimentales. Editorial Gustavo Gili, Barcelona 1997.

Habraken, N. John. El diseño de soportes. Gustavo Gili. Barcelona, 2000 (Gustavo Gili. Barcelona, 1979, 1974)

Habraken, N. John. Soportes: vivienda y ciudad. Máster LVSXXI. UPC. Barcelona, 2009.

Monteys Xabier. La calle y la casa. Urbanismo de interiores. Editorial GG, Barcelona 2017.

Monteys Xabier. La habitación. Más allá de la sala de estar. Editorial GG, Barcelona 20014.

Rolnik, Raquel. La Guerra de los Lugares. La colonización de la tierra y la vivienda en la era de las finanzas. Descontrol editorial. Barcelona 2018

Turner, John F.C. Autoconstrucción. Pepitas de calabaza, Logroño, 2018

Turner, John F.C. Housing by people: towards autonomy in building environment. Marion Boyars. London, 1976

Wadel Raina, Gerardo. "La sostenibilidad en la arquitectura industrializada: la construcción modular ligera aplicada a la vivienda" PhD diss., Universidad Politécnica de Cataluña, 2009 (<https://upcommons.upc.edu/handle/2117/93448>)

#### **Web lekuak**

Kartografia, aintzineko argazki, datu mota ezberdin eta araudiaren bilaketarako

GeoDonostia

<https://www.donostia.eus/ataria/es/web/geodonostia>

Geo Euskadi

<https://www.geo.euskadi.eus/inicio/>

Gipuzkoa Kartografia

<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/es>

Gipuzkoa Katastroa

<https://ssl6.gipuzkoa.eus/CATASTRO/map.htm?id=69&idioma=esp>

Donostiako plano topografikoak

[https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo\\_cartografia.nsf/vowebContenidosId/NT0000094A?OpenDocument&idioma=cas&id=&cat=Qu](https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo_cartografia.nsf/vowebContenidosId/NT0000094A?OpenDocument&idioma=cas&id=&cat=Qu)

Donostiako Udaleko artxibo historikoa



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKO  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA

[https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/admin\\_archivo.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=cas&id=C671670315425](https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/admin_archivo.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=cas&id=C671670315425)

Instituto Geográfico Nacional Kartoteka

<https://www.ign.es/web/catalogo-cartoteca/>

Kutxateka

[https://www.kutxateka.eus/index.php/Front/Index/lang/eu\\_ES](https://www.kutxateka.eus/index.php/Front/Index/lang/eu_ES)

Gipuzkoari buruzko argazkiak

Gure Gipuzkoa

<https://www.guregipuzkoa.eus/es/>

Gipuzkoari buruzko argazkiak

EUSTAT

<https://www.eustat.eus/indice.html>

EAEko informazio estadistikoa

**2026eko Uztailean**